

EAEko hizkuntza politika: egoera, korapiloak eta erronkak

Iker Salaberria Urkizu

Txillardegi Gogoeta Guneko kidea

Nekez egin liteke hizkuntza politikari buruzko azterketa egokia, politika hori bere testuinguruan egoki kokatu ezean. Egungo testuinguruan, gainera, ezinbestekoa zaigu begirada globala. Alegia, mundu mailan gertatzen denari so egitea, horrek guregan duen eraginaz jabetzea, eta guretik, gauden lekutik, aldatetarako egitea eta eragitea. Aitzitik, horretarako tarterik ez dugunez hemen, irakurlea JAKINEKO zenbaki honetan datorren Txillardegi Gogoeta Gunearen eraketa dokumentuan jasotzen diren, bizi dugun eta bizi gaituen garaiaren inguruko argibideak irakurtzera gonbidatuko genuke.

EAEko normalizazio prozesuaren diagnostikoa

Ez da artikulu honen helburua azterketa xeherik egitea. Horretarako, beste gonbidapen bat luzatuko dizuegu, kasu honetan hitzaldi batera: Asier Etxeniketik *xxi. menderako hizkuntza politikaz* jardunaldian eskainitakoa, hain zuzen.¹

Gure aldetik, ordea, diagnostiko horren baitan askotan mahaigaineratzen diren eta auzitan jarri nahi diren bi ideia marko aztertu nahiko genituzke. Izan ere, ideia marko horiek mundua ikusteko gure modua osatzen duten egitura mentalak dira (Lakoff 2007): kasu honetan, euskararen normalizazio prozesua begiratzeko betaurreko desegokiak

eskaintzen dizkiguten egitura mentalak, normalizazio prozesuaren irakurketa eta ikuspegia desbideratzen dizkiguten betaurrekoak.


Kontseiluak 2016ko Inkesta Soziolinguistikoen azterketan (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua 2017) adierazi zuen inkestak berak elikatzen zituela ideia horiek, errealitatearen gaineko nolabaiteko ilusio optikoak sortuz. Izan ere, Maria Braun soziologo argentinarraren eskutik jaso genuen bezala: «Inkestek ‘izaera performatiboa’ dute: ez dute soilik ikertzen den objektua deskribatzen, berori sortzen eta eraldatzen ere eragiten dute» (Braun 2011: 19).

Atal honetan lehen bi ideia markoak azalduko diren arren, ondorengo ataletan, gaitutuko beharreko beste bi azalduko dira.

1. ideia markoa: belaunaldi berriek euskaldunduko dute gizartea

Bistan da euskaltzaleek eta euskalgintzako erakundeek urte-tan izandako esperantza izan dela belaunaldi berrien euskalduntzeak gizartea bera euskaldunduko zuela. Horri atxiki da-kioke hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskalduntzeko eginiko ahalegina. Ideia hori inkestek ere elikatu izan dute, besteak beste ondorengo moduko grafikoak erakutsiz.


Euskaldunen bilakaera adinaren arabera (%) (EAE, 1991-2016)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (2016).

Grafiko horretan argi irudikatzen da gizartea euskalduntze-ko gai izan daitekeen belaunaldi berrien 'olatua'. Hori ikusita, bidearen parte handi bat egina dugula pentsa lezake baten batek. Aldiz, datu horiek ehunekotan emanak ditugula ohar-tuz gero, eta inkesta horretan ageri ez diren datu absolutuak agerian jarriz gero, ondorengoa da emaitza:

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera (kopuru absolutuak)
(EAE, 2016)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa (2016) eta Eustat. Guk landua.


Bistan denez, 2.100.000ko unibertso batean 16-24 adin taldekoak 161.000 besterik ez zirela jakiteak ikuspegia dezente osatzeko eta aldatzeko aukera eman zigun. Are gehiago zera jakinda: adin horretatik beherako guztiak aintzat hartuta ere ez zirela 467.000ra iristen (biztanleria osoaren %22). Euskararen gaitasuna belaunaldi berrietan gorantz doan arren, nabarmena da, jaiotza tasaren murrizketak eraginda, belaunaldi berriek gizarte osoko kopuru absolutuetan eragin mugatua dutela. Gainera, Arrue ikerketako emaitzek nabarmendu duten bezala, ikasleek, adinean gora egin ahala, gizarteko hizkuntza erabileraren arau nagusiekiko konbergentziarako joera erakusten dute, euren sozializazioan aurrera egin ahala, gizartearen eraginak indar handiagoa baitu, baita hizkuntzak erabiltzeko gizarte arau implizituek ere (Martinez de Luna eta Suberbiola 2020). Hortaz, aipatutako ideia markoak, funts edo

oinarri soziolinguistiko gutxi izateaz gain, euskararen normalizazioaren ardura belaunaldi berriengan gehiegi zamatzea suposatzen du. ‘Helduon munduan’ gauzak bere horretan, sakoneko aldaketarik egin gabe, mantentzen ditugun bitartean.

2. ideia markoa: ezagutza sendo, erabilera ahul

Idea marko honi lekua egiteko, Iñaki Iurrebasoren eskutik jasotako argibide zorrotzak baliatuko ditugu. Berak aipatzen duen bidetik, gurea bezalako egoera soziolinguistikoetan, hizkuntza gaitasunari buruz hitz egiteko garaian, ezinbestekoa da hizkuntza gaitasun erlatiboaren (edo konparatuaren) datua baliatzea, hauxe ulertuta: hizkuntza gaitasuna erdaldun elebakar kategoriatik euskaldun elebakar kategoriara doan *continuum* bat da (Iurrebaso 2021). Hori aintzat hartuta, Iurrebasok azkeneko inkestan erabili ziren kategoriak auzitan jartzen ditu eta, *continuum* hori osatuko lukeen bestelako sailkapena osatuz, ondorengo grafikoak erakusten dizkigu:


Ahozko hizkuntza gaitasuna, hiztunak multzokatzeko bi moduren alderaketa (%) (16 urtetik gorako hiztunak, Euskal Herria, 2016)



Iturria: Iurrebaso (2021: 31).

Bistan denez, Iurrebasoren azterketak agerian jartzen du euskaldun multzoaren baitan erdal elebidunak jasotzeak (multzoko talde handiena izanik, gainera) –alegia, erdaraz errazago edo erosoago moldatzen direnak euskaraz baino– dezente desbidera ditzakeela ezagutzaren eta erabileraren inguruko irakurketak. Modu bertsuan, *erdaldun hartzaileak* ere *euskaldun hartzaileak* hartzen baditugu. Azterlana, gainera, ez da horretara mugatzen: hizkuntza gaitasun erlatiboaren arabeko kategoriak abiapuntutzat hartuta, kategoria bakoitzean ematen diren erabilera datuak ere aztertzen ditu. Bereziki argigarriak dira emaitzok:

Euskararen erabilera hitzunen hizkuntza gaitasunaren arabera. Euskara erabiltzeko aukerak dauden egoerak soilik aintzat hartuta, hots, mintzakideak ere euskaldunak direnean (erabilera orokorraren adierazle sintetikoa, erabilera tasak) (%)
(Euskal Herria, 2016)



Iturria: Iurrebaso (2021: 35).

Ikusten denez, euskaraz erdaraz bezain ongi moldatzen diren hitzunek euskaraz hitz egiteko joera nabarmen garbia dute. Bietan berdin moldatzen direnek ere euskarazko joera garbia dute. Eta, erdaraz hobeto moldatu arren euskarazko gaitasuna dutenen artean ere, erabilera datuak adierazgarriak dira.


Txillardegik jada aipatzen zuen, berak garatutako eredu matematikoa oinarri hartuta, egungo euskararen ezagutza datuen arabera, euskararen erabilera estatistikoki espero zitekeenaren gainetik kokatzen zela. Bada, ordutik, ezagutza datuetan sendo eta erabilera datuetan ahul gabiltzala diotenei aurre eginez, Iurrebasok ere, beste behin, errealitatearen

irakurketa zorrotza hortik aldentzen dela erakusten digu, egun ditugun ezagutza mailekin, hizkuntza gaitasun erlatiboekin, jasotzen ditugun erabilera datuak baikortzat jo beharko genituzkeela mahaigaineratuz. Eta, beraz, ezagutza edo gaitasun datuak hobetu ezean, ezin espero dezakegu erabilera datuak askorik hobetzea.

Hizkuntza politikaren azterketarako markoa

Hizkuntza politiken azterketa egiteko, garrantzitsua da horretarako marko teorikoa finkatzea. Alegia, azterketaren objektu zehatza eta horren inguruko balorazioa egiteko modua argi izatea. Kasu honetan, Euskalgintzaren Kontseiluak normalizazio prozesua irudikatzeko erabili ohi duen markotik abiatuko gara. Hona:

Euskararen normalizaziorako zutabeak



Ikusten denez, euskararen normalizaziorako lau zutabe nagusi definitzen dira. Horietan azkena, herri gogo indartsua, kenduz gero, gainerako hirurak hizkuntza politikaren esparruari lotutako zutabeak lirateke. Beraz, hiru zutabe horien (araudia, plangintza eta baliabideak) nondik norakoak markatuko ditu hizkuntza politikaren egokitasunak edo gabeziak. Horrekin lotuta, beharrezkoa da bi premisa edo oinarri aintzat hartzea hizkuntza politikei buruz jarduteko garaian.

Batetik, hizkuntza politika, hizkuntza normalizazioaren aldetik neurriak hartzen direnean ez ezik, neurririk hartzen ez denean ere egin egiten dela. Izan ere, hizkuntza gutxitua ez sustatzea egungo *statu quo*-a mantentzearen alde egitea da, eta, beraz, hizkuntza politikako hautu zehatz bat. Horregatik, esan daiteke hizkuntza politika beti egiten dela, neurriak hartzen direnean, baita hartzen ez direnean ere.

Bestalde, hizkuntza presente dagoenez giza jarduera ia guztietan, politika publiko guztietan zehar-lerro gisa presente dagoen aldagaia da. Beste era batera esanda, politika publiko guztietan egiten da hizkuntza politika. Eta aurrez aipatutako premisari segituz, industria plan bat edo lurralde garapenerako proposamenak edo etxebizitza politikak hizkuntza aintzat hartu gabe egiten direnean, egungo hizkuntza joerak eta inertziak mantentzearen aldeko hizkuntza politikak ariko lirateke egiten.

Hizkuntza presente dagoenez giza jarduera ia guztietan, politika publiko guztietan zehar-lerro gisa presente dagoen aldagaia da. Beste era batera esanda, politika publiko guztietan egiten da hizkuntza politika

Eta gobernantza

Esan behar dugu beharrezkotzat jo dugula Kontseiluaren eskema hori osatzea eta oinarrian aldagai berri bat kokatzea: gobernantza. Azken boladan asko xamar entzuten den kontzeptua dugu gobernantza, eta horren inguruko definizio uniboko eta bateraturik nekez topatuko dugun arren, guk Joan Subiratsen eskutik jasotakoa baliatuko dugu:

Gobernantza merkatuko eta gizarte zibileko aktoreak gobernatzeko ekintzara ekartzean oinarritzen den erregulazio, koordinazio eta kontrolerako modu espezifikoak da. (Subirats 2019: 519)

Definizioak berak argi uzten duen moduan, hizkuntza politika garatzeko garaian esku hartzen duen aktore (alderdi, politikari, teknikari, sindikatu, mugimendu sozial...) bakoitzaren (indar) posizioak definituko du, hein handi batean, gobernantzaren nondik norakoa. Baina, kontrara ere, gobernantza horren baitan aktore desberdinei ematen zaien lekuak, eragiteko gaitasunak eta zilegitasunak ere definituko du horien (indar) posizioa. Beraz, gobernantza bera ere, bistan denez, aktore batzuk indartzeko eta beste batzuk ahultzeko erabil litekeen politika publikoetako bi-tartekoa dugu.

Egungo testuinguruan, politika publikoetan geroz eta nabarmenagoa da merkatuko aktoreen eragina eta indarra (J. Goikoetxea 2017). Gainera, ziurgabetasun eta ezegonkortasun geroz eta handiagoko gizarte baterantz goaz.

Beraz, ezinbestekoa deritzogu instituzio publikoen eta gizarte eragileen, kasu honetan, euskalgintzaren, indarrak batzeari eta osagarritasunez jardutea ahalbidetuko duen gobernantza eredu berri bat garatzeari. Modu bertsuan, bi aktore horien eta adituen jakituria artikulatzeko moduak bilatu beharko lirake, merkatuko indar homogeneizatzaileri, datozkigun erronka berriei eta etorkizun konplexu horri erantzun eraginkorrak eman ahal izateko.

EAEko hizkuntza politikaren bilakaera

Hizkuntza politikaren bilakaeraren azterketa xehea egiteko asmorik gabe, aurrez aipatutako azterketa markotik abiatuta, EAEko euskararen normalizazioaren aldeko politikaren mugarritzat jo genezakeen Euskararen Legea onartu zenetik gaur egunera arte EAEko administrazio nagusiak diren Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean hartu diren neurri nagusien bilduma egiten ahalegindu gara (guztiak ezin izan direla jaso jakinda, azterketa partziala izan arren). Beraz, oro har, ez dira aztergai izan foru aldundietatik edota udaletatik hartu izan diren neurriak.

Ondotik, bilduma horren arabera, politika horien joera edota ezaugarri nagusiak ikusita, epealdi desberdinak identifikatzen saiatu gara, horrela, epealdi horietako bakoitza zerk eta nola ezaugarritu duen definituz. Beraz, sintesi lan guztien modura, halako ariketa batek zehaztasunak eta ñabardurak galtzeko arriskua dakarren arren, ikuspegi orokor bat esku-ratzeko baliagarria delakoan, hona emaitza:

EAEko hizkuntza politikako epealdiak (1980-2015)

1980-1990: eraketa urteak

Hizkuntza politikarako oinarritzko marko juridikoa eta tresneria (euskarazko irakaskuntza, ETB...) eratzeko urteak izan ziren. Euskalgintzarekiko harremanari dagokionez, harreman urriak eta gatazkatsuak zirela esan liteke.

Neurri nagusiak

- *Corpus juridikorako oinarriak*: 10/1982 Euskararen Legea.
- *Administrazioa*: Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea.
- *Hezkuntza*: 138/1983 Dekretua (ereduen sistema), Euskal Herriko irakaskuntza ez-unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautuz.
- HABEren sorrera (1983).
- *Hedabideak*: ETBren sorrerarako 5/1982 Legea, 240/1986 Dekretuak irriti lizentzien irizpideak.
- *Gobernantza*: euskalgintzarekin harreman urria eta gatazkatsua (AEK).

1990-2000: barrura begira, administrazioa euskalduntzeko oinarriak

Batez ere administrazioaren euskalduntzeari begirako oinarriak jartzeko urteak izan ziren. Administrazioak euskalgintzarekin gatazka gordinenak gainditzeko urratsak eman zituen (AEK, *Egunkaria*); eta, euskalgintzaren aldetik, berriz, Topagunearen eta Kontseiluaren sorreraren bidetik, administrazio publikoarekin garai gatazkatsuak atzean utzi eta lankidetzan jarduteko bokazioa ikusten da.

Neurri nagusiak

- *Administrazioa*: Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko 86/1997 Dekretua. Euskal Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legea eta Osakidetzan euskararen erabilera normali-

zatzeko 67/2003 Dekretua. Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legea eta Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretua.

- *Hezkuntza*: 1/1993 Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea. AEKrekin hitzarmena (1995).
- *Sozioekonomia*: Elhuyarrek euskara planak (1991). Pilotuak.
- *Hedabideak*: *Egunkaria*-ren sorrera (1990), lehen diru laguntza (1994).
- *Gobernantza*: Topagunea (1996) eta Kontseilua (1997). Gatazkatik lankidetzara bila.

2000-2015: eremu berrietara zabaltzen... bikoizketekin

Administrazioaren aldetik eremu berrietara (EBPN, LanHitz...) zabaltzeko joera ikusten da, baina eremu horietan aurrez euskalgintzak egindako bidearen lorratzak jarraituz, bikoizketen bidez lantzen ditu. Beraz, euskalgintzarekiko harremanean ere hori nabarmentzen da, baita euskalgintzari hizkuntza politikako kontuetan jarduteko zilegitasuna ukatzea ere.

Neurri nagusiak

- Kontseiluaren Bai Euskarari plan estrategikoen ondotik, EBPN (1999).
- Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren ondotik, Elebide (2008).
- *Sozioekonomia*: Bai Euskarari ziurtagiriaren ondotik, Bikain ziurtagiria (2009). LanHitz deialdiak (2005). 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua.
- *Hedabideak*: *Egunkaria*-ren itxiera eta *Berria*-ren sorrera (2003). Lurreko uhinen bidezko telebista zerbitzua arautzen duen 190/2006 Dekretua.
- *Gobernantza*: bikoizketak eta hizkuntza politikarako euskalgintzaren zilegitasuna ukatzea (parte hartze terapeutikoa).

Iturria: *Soziolinguistika eskuliburua* (Askoren artean 2010). Guk landua.

Azkenik, 2015etik gaur egunera bitarteko epealdia xeheago aztertzeko, aurrez aurkeztutako hizkuntza politikak aztertze-ko hiru zutabeak eta sektore edo arlo desberdinak gurutzatu ditugu, azken urteotan bakoitzean hartutako neurri zehatzak argiago ikusteko:

EAEko hizkuntza politikako neurriak arloka (2015-2020)

	<i>Plangintza</i>	<i>Baliabideak</i>	<i>Arauk</i>
Hezkuntza		2020(-2021): Helduen euskalduntzean dabiltzan ikasleen gastuak estaltzeko aurrekontu igoera	
Administrazioa	2021: EAEko <i>Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak</i> dokumentua onartu		2/2016 Legea, <i>Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa</i> , eta 179/2019 Dekretua, <i>Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa</i>
Sozioekonomia	2019: <i>Euskara Eremu Sozio-ekonomikoan Sustatzeko Plana 2020-2023</i>		
Hedabideak		2019: Hekimenen eta instituzioen arteko lankidetzaren hitzarmena	
Ingurune digitala		2021: <i>Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024</i>	
Aisialdia	2021: <i>Kirolean Euskara Sustatzeko 2021-2024 Plana</i>		
Kultura			

Besterik	2017: <i>Euskararen Agenda Estrategikoa</i>	2017: Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak <i>Euskaraldia</i> egitasmoa abiatzea	2019: <i>Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)</i>
<i>Gobernantza</i>			
2017: Hizkuntza politiken inguruko lankidetzak hitzarmena: Hiruko Ituna (EJ, NG, EEP) UEMA HAKOBako (2013) eta EABko kide (2014) Kontseiluko ordezkaria EABko kide (2017)			

2015-2025: euskalgintzaren aintzatespenerantz edota xurgatze instituzionalerantz?


Epealdi honetan, aldaketaren bat nabarmendu beharko bagenu, hain zuzen ere, gobernantzari lotutako aldaketa nabarmenduko genuke. Bistan denez, Eusko Jaurlaritzaren eta euskalgintzaren harremanak aldatu dira. Harreman bide berriak zabaldu dira eta lehendik zeudenak aldatu, hein handi batean. Besteak beste, horrek bultzatuta hartu dira taulan ikus daitezkeen hainbat neurri (Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko Plana, Hekimenekin hitzarmena, Euskaraldia...). Bide hori hasi besterik ez denez egin, ikusteko dago lehen aipatutako parte-hartze eskaileran noraino igotzeko intentzioa dagoen edota horrek berak euskalgintzaren xurgatze instituzionala ekar dezakeen.

Horrekin batera, epealdi horretan, aipatzekoa litzateke hizkuntza politikaren zeharkakotasuna aintzat hartu eta neurri zehatzetara eramateko lehen urratsak egin direla (Udal Legea garatzeko dekretuan eta Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan, batez ere).

Azkenik, EAEko hizkuntza politiken bilakaeraren azken adierazle gisa, erakunde publikoetatik euskararen sustapenera bideratutako aurrekontuaren ehunekoak biltzen dituen grafikoa duzue jarraian. Ikus daitezkeen bezala, euskalgintzak urtetan aldarrikatu izan duen aurrekontuen %2tik urruti xamar daude instituzio guztiak, udal handi batzuk salbu.

Bilakaera gehienak, aldiz, nahiko egonkorak dira, bi instituzio hauetan izan ezik: bilakaera gorakorra duen Gasteizko Udala, eta bilakaera beherakorra duen Eusko Jaurlaritzak.

Euskara sustatzeko aurrekontu publikoak, erakunde motaren arabera (EAE, 2002-2020)



Estatu egituren eraso politiko/judizialak

Hizkuntza politiken bilakaeraren errepassoa amaitu eta ondorioetan sartu aurretik, ezin dugu begiz galdu estatu egiturek hizkuntza politikan izan duten esku hartzea. Azken epealdi horri soilik begiratuta, ondorengo neurriak topa ditzakegu:

- 2017: estatuko ordezkariaren ekimenez *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako euskara planaren gainean* emandako epaia, toki euskaldunetan komunikazioak euskaraz bakarrik egitea, kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak ezartzea eta diru laguntzetan hizkuntza irizpideak ezartzea eragozten duena.
- 2020: estatuko ordezkariaren ekimenez *Auzitegi Gorenak argitaratutako epaia, 2017an Lasarte-Oriako Udalak onartu zuen ordenantzaren kontra*, zeinaren arabera euskara diru laguntzetarako irizpide izatea ezetsi zuen.
- 2021: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Udaltzaingo zerbitzurako* hamabi lanposturi ezarritako hizkuntza eskakizunak bertan behera uzteko argitaratutako epaia.
- 2021: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak 2016an Eusko Legebiltzarrean onartu zen Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen 6.2 artikulua* auzitan jarri zuen, zinegotzi bakar bat ere ez duen Vox alderdiak jarritako helegite baten ondorioz.
- 2022: UGTk Araba, Bizkai eta Gipuzkoan udaltzain izateko lan poltsari jarri zion helegitea. *Gasteizko Administrazio Auzitegiak ebatzi zuen ez dela beharrezkoa euskarazko B2 maila egiaztatzea lan poltsa horretarako sarbidea izateko.*
- 2023: CCOO sindikatuak Barakaldoko Udalaren kultur zerbitzuez arduratzeko lehiaketaren aurka helegitea aurkeztu zuen. *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak azpi-kontratutako zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka ebatzi zuen.*
- 2023: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi du legez kanpoko delat euskararen ezagutza aintzat hartzea* Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko Uliazpi fundazioan 34 lanpostu betetzeko oposizioan. Epaiak, gainera, *kolokan jarri ditu administrazio publikoetako hizkuntza planifikazioaren oinarri juridikoak.*
- 2023: *EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskola garraioarekin*

lotutako kontratazio baterako jarritako hizkuntza klausulak «inposizioa» direla, eta esan du arlo publikoan ari diren *enpresetako langileei ezin zaiela euskara eskatu administrazioarekin erlazionatzeko. Epaiak lehen aldiz esku hartu du administrazioaren eta enpresen harreman hizkuntza arautzeko administrazioak ezarritako kontratazio baldintzetan.*

Bistan da estatu egiturek euskararen normalizazioa noraino hel daitekeen eta noraino ez modurik gordinenean gogorazteko joera dutela. Ez hori bakarrik, hizkuntza politikari buruzko azken hitza ere eurena dela mahaigaineratu nahi izan dute behin eta berriro. Azken urteotan, gainera, estatuko berezko hizkuntza gutxituen aurkako posizioak gogortzen eta gotortzen ikusi ditugu. Joera horrek etorkizunean ere EAEko hizkuntza politikan eragingo duela aurreikus liteke. Beraz, horien aurrean nola jokatu ere gakoa izango da hizkuntza politikaren nondik norakoa ebazteko garaian.

EAEko hizkuntza politikaz: zenbait ondorio orokor

Atal honen goiburuan aipatu bezala, orain arte esandako guztia oinarri hartuta, EAEko hizkuntza politikaren inguruko ondorio orokor batzuk jaso nahi izan ditugu. Hizkuntza politika horrek alderdi baikorrik izan duen arren (batez ere euskararen ofizialtasunetik eratorriak eta hezkuntza sistemari lotutakoak azpimarratuko genituzke), hizkuntza politikaren gabeziatan edo hobetu beharrekoetan jarri dugu arreta, etorkizuneko bidea errazago irudikatzen lagundu dezaketelakoan.

Ondorio hauek ateratzeko bidea ez dugu bakarrik egin. Alegia, han eta hemen beste zenbaitek esandako ideiak baliatu ditugu ondorioei izenburua jartzeko. Eurei hartutako ideien garapenari, ordea, gure ikuspegia erantsi diogu.

Razionaltasun neoliberalak (Apodaka eta Morales 2021)

Razionaltasun neoliberalak zentzuzkoa, arrazoizkoa eta bidezkoa denaren araua zehazten du. Dispositiboetan eta

diskurtsoetan horien bidez jarduten du, errealtatearen, arazoaren definizioaren eta konponbideen arrazoi (arrazoizkoa) eta zentzu (legitimoa) gisa.

Horren baitan, gure aldetik, razionaltasun horrek eragiten dituen bi gabezia edo ondorio azpimarratuko genituzke. Batetik, hizkuntza politikaren despolitizazioa eta teknokratizazioa bultzatzen du. Alegia, hizkuntza politikari izaera politikoa erauzi eta politika horien nondik norakoak adituen esku uzteko joera ikus daiteke. Zientziaren, adituen eta ikerlarien balizko ekarpena gutxietsi gabe, halako bide baten mugak mahaigaineratu nahiko genituzke. Zientzia bera baita, zientzia politikoa, hain zuzen, aspaldian bide horren mugak agerian jarri dituena. Ikuspegi hori kamutsa da guztiz, giza zientziek akatsak izateko aukerengatik, agerikoagoak diren muga prediktibo eta preskriptiboengatik, aktoreen arteko interes gatazkarengatik, horrek izan dezakeen kostuarengatik... (Lindblom 1991) eta funtsean arazoaren eta aterabide posibleen formulazioa bera 'joko politikoa' delako bete-betean.

Horrekin batera, ikuspegi horri atxikiko genioke, bizi gaituen garaiaren azterketan aipatutakoaren bidetik, herritarren 'hautu askearen' ideia. Azken finean, herritarrok libreki eta gure kasa (kanpo baldintzapenik gabe) erabili nahi dugun hizkuntza hautatzeko aukera dugulako ikuspegia elikatzen da. Eta hari horri segika, nola ez, norbanakoongan jartzen da hizkuntza normalizazioaren nondik norakoaren zama eta ardura nagusia.

Beligerantzia burokratizatu (Jessop 2017)

Hizkuntza politikaren bilakaera aztertu dugunean aipatu den bezala, administrazioaren aldetik euskalgintzarekiko harremanak aldatzeko hautua egin da azken urteotan. Azaldu dugun bezala, ikusteko dago euskalgintzaren aintzatespenean sakontzeko eta gobernantza ereduak aldatzeko bidea egingo den edo euskalgintzaren xurgatze instituzionalerantz joko den.

Edozein kasutan, gaur-gaurkoz egindako aldaketekin, euskalgintzaren aldetik egon izan den beligerantzia burokratizatze

hautua egin dela esango genuke. Hau da, euskalgintzarekiko harremanak hurbilduz, adostasun bideak zabalduz, lankidetzak zehatzak garatuz, euskalgintzari zenbait forotan parte hartzeko aukera emanez..., euskalgintzak izan duen ikuspegi kritikoa eta sortu izan dituen gatazkak arintzea, apaltzea eta kasu batzuetan gainditzea bilatu dela baieztatu genezake.

Horrenbestez, ikuspegi kritikoa izan zezaketen eragileen energia eta ezagutza jardun instituzionaletara bideratzea eta, hartutako ardura eta erantzukizunen ondorioz, erresistentzia foku potentzialak izan zitezkeenak administrazioaren mendeko agente automugatuak bihurtzeko bultzada egon daiteke mugimendu horien atzean.

Razionaltasun neoliberalak hizkuntza politikaren despolitizazioa eta teknokratizazioa bultzatzen du. Hizkuntza politikari izaera politikoa erauzi eta politika horien nondik norakoak adituen esku uzteko joera ikus daiteke

Iraupen faseko hizkuntza politika

Euskara irabazteko bidean liburuan, Joxerra Gartzia aipatzen zuen gurean iraupen fasea egon zela. Aldiz, irauteko baldintzak hobetu diren honetan, estrategiak ezin zuela irautea izan, eta hortik gorako zerbait izan behar zuela (G. Goikoetxea 2016: 175-176).

Bada, gure aldetik ere argi ikusten dugu belaunaldi berrien euskalduntzean ardaztutako eta hezkuntzan oinarritutako hizkuntza politika garatzen dela.

Hezkuntzaren bidez belaunaldi berriak euskaldunduta gizarite osoa euskaldunduko genuelako garai bateko ametsak kale egin du. Esperientzia gordin horrek eta soziolinguistikaren ezagutzak uste horren gabeziak agerian utzi ditu. Baina, gaur da eguna, oraindik orain eta berriro ere, belaunaldi berrien bizkar esperantza eta zama hori guztia jartzen duguna.

Bada, gainditu beharreko lehenengo ideia markoan adierazi dugun bezala, ezin eska dakioke demografikoki hain pisu gutxi duen eta gizarte ohituretan eragiteko hain ahalmen mugatua duen belaunaldiari euskararen normalizazioak suposatzen duen gizarte eraldaketaren pisua eta erantzukizuna ezartzea. Justua ez izateaz gain, ezinezkoa baita. Modu horretan, helduen munduak ezartzen dizkieten muga, joera eta gizarte arauak eraldatzeko hizkuntza politikak garatu gabe, iraupen faseko politikekin jarraitzen dugu gaur-gaurkoz.

ETB1/ETB2 politika edo euskara bai, baina...

Azkeneko Udaltop jardunaldietan (Lasarte-Oria, 2022), hiztun hobeak sortzeko eskolaz kanpo egin beharrekoen inguruan, Pablo Suberbiolak zioen gazteak ohartzen direla eta oso kontziente direla gurea euskararekiko ‘bai, baina ez’ gizartea dela. Edo, beste modu batera esanda, ETB1/ETB2 gizarte bat. Alegia, euskararen aldekoa den gizarte bat, baina neurri batera arte. Edo, Euskal Telebistaren gisan, euskara sustatzeko sortutako baliabidea izanik, erdarazko kateari lehentasuna eman eta baliabide gehiago bideratzen dizkion gizartea.

Bada, hizkuntza politikei dagokienez ere, hori berori esan genezake. Esan dugun bezala, hizkuntza politika, zeharkakoa izanik, beti egiten baita. Eta euskararen normalizazioaren alde bideratzen diren laguntzen aldean, dezente handiagoak baitira egungo errealitatea eraldatzeko inolako irizpiderik ezarri gabe bideratzen diren laguntza eta kontratu publikoak, besteak beste.

Politika horiek guztiek, egungo joera hegemonikoak bultzatu eta babesteaz gain, euskararen lehentasun mailaren eta garrantziaren gizarte pertzepzio ezkorra elikatzen dute.

Boluntarismoan oinarritutakoa (inposizioaren markoak janda)

Hizkuntza politiken bilakaeran argi ikus daitekeen bezala, aurrez aipatutako hizkuntza politikako zutabeen artean

(baliabideak, plangintza, arauak) bada zutabe bat nabarmen hankamotz, garapen oso apala izan duena: *corpus juridikoa* edo araugintza, hain zuzen ere. Eta hori gainditu beharreko hirugarren ideia markoaren ondorio zuzena dela esango genuke: inposizioaren ideia markoa.

Urteak daramatzagu diskurtso erdaltzaleak janda, euskaldunon hizkuntza eskubideen arau bidezko babes neurri eraginkorrik eraiki gabe. Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren urteko txostenek urtero-urtero milaka urraketen berri ematen jarraitzen dute (Hizkuntza Eskubideen Behatokia 2021). Arlo edo eremu guztietan gertatzen dira urraketok: finantza entitateetan, interes orokorreko zerbitzuetan, merkataritzan, eta maila guztietako sektore publikoko erakundeetan (osasun zerbitzuan, Eusko Jaurlaritzan, aldundietan, udaletan...).

Bitartean, lege urraketek inolako zehapen edo kalterik ekartzen ez duten arau bakanak euskararen eremuan garatzen dira, Kontsumitzaile Dekretua, kasu.²

Politika publikoetan, beste edozein arlorekin alderatuta, araudiaren tresneria baliatzeko konplexu gehien dituen arloa da euskararena. Bistan denez, hemen gaztelera ez eta euskara inposatzen den diskurtsoak ederki janda dago bertako hizkuntza politika. Euskararen alde egin nahian, baina, badaezpada, erdaltzaleak gehiegi molestatu gabe, eta araugintza baztertuta. Euskararen alde egiteko prest dagoenari esku bat botatzeko prest (laguntzen bidez), baina urratsik egiteko inolako intentziorik ez dutenei betekizunak jartzeko uzkur.

Horrek guztiak, besteak beste, egunerokoan ikusten ditugun eta oso presente ditugun bi hiztun tipo edo hiztun portaera ohiko sortu ditu. Herrialde katalanetan izendatutako hiztun tipoak izan arren, gurean ere erreproduzitzen dira. Eta norbanako guztiak talde horietan bete-betean eta maila berean sartzan ez diren arren, gure inguruan oso ohikoak diren azturak erreproduzitzen dituzte. Hona:

- *Ikasitako omnipotentzia* (Joan 1998): Bernat Joan soziolinguistikariak ikasitako omnipotentzia deitzen dio edozein goeratan bere hizkuntzan (menderatzailean)

adieraz daitezkeela kontsideratzeari. Are gehiago, edozein solaskide (gutxienez, moralki) behartuta dagoela haren aurrean bere hizkuntzan hitz egitera. Jarrera horrek bide ematen du onartzeko: batetik, hitzun omnipotente bat sartzen den edozein taldek haren hizkuntzan hitz egin beharko lukeela; bestetik, ez dagoela hizkuntza gutxitua ikasteko edo ulertzeko inolako beharrik. Kasu batzuetan, jarrera supremazista hori mendeko hizkuntzarekiko edo-

zein esposizio (hizkuntza paisaia, dokumentuak edo elkarrreragin pertsonalak) haiekiko errespetu falta edo iraina dela uste izateraino hedatzen da.

Bistan denez, ikasitako omnipotentziaren baitan gradazio desberdinak egon litezke, eta hizkuntza hegemonikoko hitzun guztiek ez dute muturreko jarrera hartzen. Jarrera erabat supremazistak dituztenen bes-

te aldean kokatuko lirateke elebitasun formal itxuraz berdinzalearen alde egiten dutenak; baina euskararen berezko hizkuntzaren izaera eta gutxitze prozesua aintzat hartu gabe, *de facto*, gutxitutako egoera hori mantentzea bultzatzen dutenak, gaztelera hizkuntza komun eta unibertsal gisa eta euskara tokiko hizkuntza partikular gisa kontsideratuz.

- *Ikasitako babesgabetasuna* (Suay eta Sanginés 2005): Ferran Suay eta Gemma Sanginés psikologo eta TELP tailerren sortzaileek diotenez, hizkuntza gutxituetako hitzunok gure praktika linguistikoengatik errefortzuak edota zigorrak jasotzen ditugu. Horien emaitza gisa, sozializazio prozesuan zehar, ikasitako babesgabetasuna barneratzen dugu. Euskaraz hitz egiteagatik ez ulertzeak, deserosotasunak edota gatazkak sor daitezkeela ikasten dugu. Aitzitik, errazago onartzeko eta ulertzeko zein

Euskalgintzaren
Kontseilutik Eusko
Jaurlaritzarekin
harremanak sendotzeko
aukera ikusi zenean,
governantza eredia
aldatzeko proposamena
aurkeztu zitzaien

azkarrago komunikatzeko errefortzu positiboak jasotzen dira gazteleraz hitz eginez gero.

Horrela, egoera horiek saihesteko, erdarara jotzeko joera elikatzen da. Eta, hala egitean, hiztunak eurak deseroso senti daitezke, hain zuzen ere, beren kontzientzia mailak agerian uzten dielako beren hizkuntzaren kontra egiten ari direla, eta horrek mendeko egoeran jartzen dituela, norberaren duintasuna urratuz. Barne orekari eusteko, hiztunak mekanismo kognitibo batzuk erabili ohi ditu bere jokabidea justifikatzeko. Horrela, gehienek beren mendekotasuna ideologikoki finkatzen amaituko dute lehenago edo geroago. Hala ikusten da, besteak beste, euskaldunon artean hain zabaldua dagoen hezkuntza onaren inguruko ohiko argudioan, erdaldun bat tartean dagoenean euskaraz hitz egitea edukazio txarraren seinale gisa hartuz.

Horiek guztiak aintzat hartuta, beraz, EAEko instituzio nagusien egungo hizkuntza politika bi hitzetan definitu beharko bagenu, goia jo duen hizkuntza politika dela esango genuke, datozkigun erronka kolosalei aurre egiteko gai ez dena eta birpentsatzea eskatzen duena.


EAEko hizkuntza politika birpentsatzen: 6+1 erronka proposamen

Atal honetan, ondorio orokorretan aipatutako hizkuntza politikak birpentsatzeko ariketari lotutako proposamenak jasoko dira. Hizkuntza politikari lotutako sei erronka proposamen eta azkeneko proposamen gehigarri orokorrago bat.

1. erronka: gobernantza komunitarioa

Euskalgintzaren Kontseilutik Eusko Jaurlaritzarekin harremanak sendotzeko aukera ikusi zenean, gobernantza eredu aldatzeko proposamena aurkeztu zitzaien. Ondorengo irudian laburbiltzen da Kontseiluak eginiko proposamena, hein handi batean:

Gobernantza komunitariorako proposamena
(Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua 2019)



Proposamenaren xehetasunetan sartu gabe (ez dugu nahi-koa tarte horretarako), funtsean, aurrez azaldu den bidetik, administrazioaren eta euskalgintzaren lankidetzan oinarritutako gobernantza komunitario baterantz joatea proposatzen zen,³ bakoitza bere funtzio eta jardun esparrutik, baina hizkuntza politikak hobetzeko ezagutzak partekatuz, arazoak elkarrekin diagnostikatuz, etorkizuneko jomugak landuz, aterabideak eztabaidatuz, politiken inplementazioan bakoitzak beretik bultzatuz... Adostasunak bilatuz, baina desadostasunak kudeatzeko norbere moduak ere errespetatuz. Izan ere, gobernantza eredu horretan arrisku nagusietakoa lehendik aipatu dugun euskalgintzaren xurgatze instituzionala izan daiteke. Eta eredu horretan, beraz, euskalgintzak jakin beharko luke hanka bat instituzioetan eta bestea kalean izanda jarduten.

2. erronka: zeharkako hizkuntza politika

Bigarren erronka honek ere gobernantza ereduarekin lotura zuzena du.

Lehendik ere aipatu dugu hizkuntzaren zeharkako izaera eta politika publiko guztietan presente dagoela. Horrenbestez, zeharkakotasun horren araberrako lekua izan beharko luke hizkuntza politikaz arduratzen den organo instituzionalak.

Euskalgintzaren urtetako aldarrikapen historikoa izan da (eta etorkizunean hizkuntza politika eraginkorrak izango baditugu, eutsi beharko zaio) hizkuntza politika Lehendakari-tzaren baitan kokatu beharko litzatekeela, horrela, gainerako sail guztien politika publikoetan hizkuntzaren aldagaia egoki koka dadin eta irizpide egokiak izan ditzaten.

Zeharkakotasun hori ez litzateke soilik administrazio bereko sailen arteko berrantolaketan geratu behar, gainera. Goitik behera ere, alegia, administrazio orokorretatik udal administrazioetara doan hizkuntza politikak bi norabideetan ongi adostua, koordinatua eta olioztatua egon beharko luke.

3. erronka. Fokua (markoa) birkokatu. Erabileratik erabilerarako baldintzetara

Hemen doa gaingitu beharreko laugarren eta azken ideia markoa, erabilerarena, hain zuzen. Alegia, etengabe erabileran jarrita dugun fokua edo arreta birkokatu beharko litzatekeela proposatzen dugu.

Partez ulertzekoa da erabilerari begiratzea, hizkuntzen bizitasun mailaren adierazle behinena baita. Baina, ulertu beharko litzateke hizkuntzaren erabilera faktore edo aldagai kate luze baten azken katebegia edo emaitza dela. Alegia, faktore horietan guztietan dugula benetan arreta edo fokua jarri beharra, erabileran sakoneko aldaketarik lortuko badugu.

Askotan bai baitirudi sukarrari aurre egin nahi diogula sukarra jaisteko pilulekin. Baina ohartu gabe, infekzioa sendatzeko ezer egin ezean, epe motzeko emaitzak lortuko ditugula gehienera, baina sendabidean ez dugula gehiegi aurreratuko.

Edo beste modu batean esanda: hainbeste begiratu diogu zuhaitzari, bere inguruko basoari edota ekosistema osoari begiratzea ahaztu izan zaigula.

Beraz, ulertu beharko genuke euskararen erabilera egungo gizarte baldintzen (sozial, kultural, politiko, ekonomiko eta teknologikoak) emaitza dela. Eta, beraz, gizarte baldintza horietan egiturazko aldaketarik egin gabe, ezin espero liteke euskararen erabileran ere aldaketa nabarmenik. Bide horretan, azken urteotan ikusten ari garen norbanakoon ahalduntzera bideratutako ekimenek beren mugak dituzte eta izango dituzte, horiekin batera eta horietaz gain egungo gizarte baldintzak auzitan jarri, problematizatu eta eraldatzera bideratutako ekimenik abiatu eta neurri politikorik hartu ezean.

Horiek horrela, fokua erabileran jarri beharrean erabilerarako edo erabilera erosoerako baldintzetan jartzea proposatzen dugu. Alegia, euskararen erabilera eroso izan dadin behar ditugun baldintzei buruz jardun beharko genuke; horrekin tematu beharko ginategi, nagusiki. Ulertzen baitugu, gainera, fokua erabileran jarrita azken buruan erabiltzaileen jartzen ari garela eta, ondorioz, euskal hiztunak arduraz eta erantzukizunez zamatzen ari garela. Aldiz, fokua erabilerarako baldintzetan jarrita, gizarte baldintzetara mugituko genuke eta, modu horretan, ardura eta erantzukizuna eremu politikora bideratuko genituzke.

4. erronka: erabilera erosoerako zorua. Ezagutzaren unibertsalizazioa

Bada, erabilerarako baldintzei gagozkielarik, erabilera hori hiztunentzat ahalik eta erosoena izan dadin baldintzak lantzeari buruz hitz egin beharko genuke. Izan ere, hiztunentzat erosoagoa, errazagoa edota gozagarriagoa baldin bada erdaraz aritzea, nekez egingo du gora euskararen erabilerak.

Hori horrela, lehen baldintza, erabilera erosoerako zorua ezartzeko, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa litza-kete. Alegia, edonork, edonon, edonorekin euskaraz eroso

egiteko moduko ezagutzaren zabalpenaz ariko ginateke. Eta horrekin zera esan beharra dago, berebiziko garrantzia duena hiztunen gaitasun erlatiboa dela. Alegia, hiztunek euskara eroso erabiliko badute, gutxienez, erdara bezain ongi menderatu beharko dute, hala izan ezean, eroso erdaraz jardutea suertatuko baitzaie.

Horretarako guztirako, noski, beharrezkoak lirateke hizkuntza transmisiorako hiru esparru nagusiei begirako politikak garatzea: hezkuntzari, helduen euskalduntzeari eta familia transmisioari buruz ari gara, noski. Lehenengoaren kasuan, gainera, Hezkuntza Legearen eztabaida betean murgilduta gauden honetan, gaur egungo ikasleen gaitasun datuak eta hezkuntza eragileen artean dagoen adostasun maila ezagututa, nekez uler daiteke nola ez den behingoz murgiltze eta mantentze eredu bakar orokortua ezartzeko urratsa ematen. Helduen euskalduntzean, aldiz, nekez uler daiteke EAEko herritarrek euskara ikasi ahal izateko ordaindu behar izatea edota dirua euren poltsikotik aurreratu behar izatea.

Lehen baldintza, erabilera erosoarako zorua ezartzeko, euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa litzateke. Edonork, edonon, edonorekin euskaraz eroso egiteko moduko ezagutzaren zabalpena

5. erronka: erabilera erosoarako espazioak. Arnasgune territorial eta soziofuntzionalak

Euskaraz eroso aritzeko, ordea, hiztunek euskara erabiltzeko aukerak eta gune erosoak behar dituzte. Izan ere, espazio soziofuntzionaletan zein territorialetan hizkuntza erabilera-rako arau sozialak eraiki ohi dira, eta hiztunok arau horietara egokitzeko joera dute.

Beraz, euskal hiztunek erabilera eroso gara dezaten, beharrezkoak dira eguneroko harreman arruntetarako hizkuntza

nagusi edo bakarra euskara duten arnasgune soziofuntzional edo territorialak, euskararen erabileraren aldeko arau soziala ezarria duten espazioak, hain zuzen. Halakorik ezean, eremu desberdinetan ezarritako arau sozialaren aurkako etengabeko jardunean (gogoan izan ikasitako babesgabetasunari buruz esandakoa) erabilera ez da eroso izango, eta, egoera horretan, kasu gehienetan, lehenago edo beranduago, erdaren aldeko joera nagusituko da.

Hori bakarrik ez; Txillardegik zioen bidetik, «ez bada beharrezkoa bere lurraldean, hizkuntza batek jai du!».⁴ Eta bertaratu berri batek nonbait sumatuko badu euskara beharrezkoa dela, hori arnasguneetan izango da.

Hartara, aski onartua dagoen arnasguneen beharrea eta garrantzian gehiago sakondu gabe, esan dezagun aitortza hori politika publiko berezietara eta berezitueta itzuli beharra dagoela, ondoriorik izango badu. Kasu honetan, beraz, arnasguneen (berriro diogu, soziofuntzionalen eta territorialen) zaintza eta garapena bermatzeko lege garapen propioa beharko litzateke.

Horrekin lotuta, lurralde antolaketaren esparrutik ere beharrezkoa litzateke arnasguneen garapenari begirako estrategia propioak definitzea. Trenbide sarearen, hiri hondakinen zein ibaiertzen, nekazaritza eta basozaintzako eremuen arloko planak⁵ egiten diren bezalaxe, arnasguneen garapenera bideratutako lurralde antolaketarako estrategia zehaztu beharko litzateke.

6. erronka: hizkuntza politika integral eta arautzailea garatu

Gurean egon da eta badago joera oraindik ere hizkuntza politikari lotutako lehentasunezko eremu bakan batzuk definitu eta horietan buru-belarri jardun beharra aldarrikatzeko (orain artean hezkuntza, orain lan mundua, aisialdia...).

Lehendik esan dugun bidetik, hizkuntzaren afera zeharkakoa da, eta egungo teknifikazioak, errepide sareek, urbanizazio prozesuek, komunikabideek, sare sozialek... gizarte esparruen

iragazkortasuna areagotu dute. Garai bateko hizkuntza funtzioen konpartimentazio posiblea edo eremu geografikoen beregaintasuna erabat higatu dira. Gizarte molde eta interdependentzia horrek, beraz, inoiz baino gehiago, hizkuntza politika integralak, arlo guztiak aintzat hartuko dituztenak garatzea eskatzen duelakoan gaude.

Ulertuta, noski, baliabideen urritasunak lehentasunak ezartzea eskatzen duela, ezinbestean. Hala eta guztiz ere, inoiz ikuspegi osoa galdu gabe, eta, egiten ari garenaz bezainbeste, egiten ari ez garenaz ohartuta. Horretarako, beraz, arlo guztiak aintzat hartuko lituzkeen hizkuntza politika eraiki beharko genuke, arloz arloko erronkak identifikatuz eta horiek egikaritzeko neurriak inplementatuz. Unean-unean arlo bakoitzean egin beharrekoen eta egin litezkeen oreak zailak bilatuz.

Horretarako, gainera, urtetan garapen urriegoia izan duen euskararen inguruko corpus juridikoa garatu eta baliatu beharko litzateke, sustapenaren eta arauaren artean ere hizkuntza politikak modu orekatuan eta integratuz.

Hori esanda, gobernantzaren atalean aipatu dugun bidetik, argi dago hizkuntza politika hori nagusiki arlo bakoitzeko euskalgintzako eragileekin lankidetzan eraiki beharrekoa litzatekeela. Halako prozesu bat egin gabe ausarkeriaz jokatzen ari garela ohartu arren, proposamenak botatzea eskatu zaigunez, hona balizko hizkuntza politikak definitzen has-teko zenbait orientabide posible, azalpen askorako tarterik gabe, labur-zurrean.

Arlo horien garapenak, gainera, etorkizuneko hiztunen euskaraz egiteko arrazoibideak edo motibazioak elikatu beharko lituzke. Alegia, hiztunen euskararekiko atxikimendua lantzeko balio beharko luke. Horrela, banaketa erabat zurruna ez den arren, ondoko taularen goiko bi arloek (administrazioa eta sozioekonomia) nagusiki hizkuntzarekiko *atxikimendu efektiboa* edo atxikimendu pragmatikoa bultzatu beharko lukete. Aldiz, azpiko lau arloek *atxikimendu afektiboa* edo emozionala.

Hizkuntza politikarako erronkak

<i>Erronkak</i>	
<i>Administrazioa</i>	Administrazioa euskalduntzeko <i>epemuga zehatzak eta baliabide bereziak</i> jarri behar dira. Epeak jarri, helburuak modu egokian definitzeko, baina, batez ere, bertako langileek edo bertan lan egin asmo dutenek argi izateko noizko izango den ezinbestekoa euskaraz lan egiteko gaitasuna izatea. Eta, aldi berean, gaitasun horiek eskuratzeko baliabide berezituak eskaintzea langile horiei, noski. Garai batean hezkuntzan egin zen eraldaketa administrazioan egin ahal izateko.
<i>Sozioekonomia</i>	<i>Arautu: kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak</i> aitortzeaz gain, modu efektiboan berma daitezten. Baita, kontratazio eta diru laguntzen esparruan, gizarte erantzukizunaren ikuspegitik hizkuntza jokabide arduratsuak bermatzeko <i>hizkuntza klausula</i> ere.
<i>Ingurune digitala</i>	<i>Hizkuntza teknologiaren garapenean</i> euskarak ere behar duen lekua izan dezan inbertsioak bultzatu. Horrekin batera, ingurune digitalean euskarak presentzia izan dezan, euskarazko edukiak sareratu, baina, batez ere, <i>bertako erreferenteak sortzea</i> bultzatu.
<i>Hedabideak</i>	<i>Arautu: erdarazko hedabideei kuota sistemak</i> aplikatu, gutxieneko euskarazko edukiak edota produkzioa gara dezaten. Bestalde, <i>euskarazko komunikazio sistema</i> propioa eratu, euskarazko hedabideen sarea artikulatuz, eta bultzatuz.
<i>Aisialdia</i>	<i>Arautu: gaur egun hizkuntza gaitasun (ia) unibertsala</i> duen 16 urtetik beherako ume eta gazteentzat administrazioak antolatu edo lagundutako jarduera guztiak <i>euskaraz soilik</i> izan daitezten bideratu. Ildo beretik, begirale titulua izateko hizkuntza gaitasun egokia egiaztatu behar izatea.
<i>Kultura</i>	Sortzaile, ekoizle, produktore, kontsumitzaile... euskaldunak artikulatuko dituen <i>euskarazko kultur sistema eta zirkuitua eratzea</i> , horretarako beharrezko arauak garatuz (artista, sortzaile eta kultur langilearen estatutua), babesa eskainiz eta inbertsioak eginez.

* Hezkuntza arloko erronkak aurrez aipatu dira.

Azken horiei lotuta, hau da, ingurune digitalen, hedabideen, aisialdiaren eta kulturaren esparruetan, ohartu beharko ginateke eskaintza eta lehia globaleko testuinguruari aurre egin beharko zaiola (are gehiago hizkuntza teknologiak garatu ahala) . Nekez pentsa genezake, testuinguru horretan,

baliabidez eta gaitasunez gehiago izango direnekin kalitate parametroetan, soilik, lehiatzeko gai izan gaitzkeenik. Gure ustez, helduleku nagusia ez dugu hor. Iruditzen zaigu hau dela bidea: atxikimendu afektiboaren bidetik, autozentratutako produkzioa garatzea, gure herri kontakizuna eraikitzeke eta horretan ardazteko gai den kultura, aisialdia, hedabideak... garatzea. Herri iruditeria edo imajinario propioa sortuz eta birsortuz zein erreferente edo erreferentzia propioak sortuz eta elikatuz. Modu horretan, komunitate sentimendu bat, gutasun bat eraikitzen joatea eta, horrela, gure komunitateko partaide gisa, hori eskaintzen dutenekiko atxikimendua elikatzea litzateke, gure ustez, gakoa.

+1 erronka: hizkuntzaren afera birpolitizatu

Imajina ezazu zure etxera, ate joka, euskaraz dakien komertzial bat datorrela. Atea ireki, eta bera erdaraz hasi arren, zuk euskaraz hitz egiteko eskatuz gero, elkarrizketa euskaraz garatuko litzateke, ziurrenera. Aldiz, pentsa ezazu orain, langabezian egonik, lan elkarrizketa batera zoazela enpresa batera; zu euskaraz hasi eta elkarrizketatzaileak, bisitatu zaituen komertzial bera izanda, gazteleraz egiteko eskatzen dizula.

Bourdieu esanak dira:

Hizkuntza trukeak botere sinbolikoko erlazioak ere badira, non esatarien eta horien taldeen arteko botere harremanak eguneratzen diren. (Bourdieu 1985: 11)

Eta horrekin batera:

Hitz egiten diren hizkuntzen bidez, hitz egiten duten hiztunak eta hizkuntza gaitasun horrek definitutako taldeak, gizarte egitura guztia dago presente elkarrekintza bakoitzean (eta, hala, diskurtsoan). (*Ibid.*: 41)

Ondorengoa, berriz, Kontseiluko idazkari nagusi kargua hartu berritan Idurre Eskisabeli *Argia*-n eginiko elkarrizketan esana da:

Horrez gain, gutxitan aipatzen da euskararen biziberritze prozesua eraldaketa sozialeko prozesua dela. Jendarteko botere harremanetan aldaketak ekarri behar dituela derrigor, eraldaketa prozesu guztietan bezala. (Arbelaitz 2022)

Horrekin guztiarekin zera adierazi nahi dugu, hizkuntza-
ren nondik norakoak, hizkuntzen ordezkapen prozesuek
argi erakusten duten bezala, botere harremanen joko zelaian ebatzen direla. Azkenaldian bolada xamarrean dauden sedukzioaren eta limurtzearen aldeko joerek beren ekarpena egin dezaketen arren, hizkuntzaren auzia politikoa dugu

(beste hizkuntzaren lekua edota funtzioak betetzeko) (Mackey 1976) bideratuko dutela, azken batean, hizkuntzaren berreskurapena edo galera.

Azken ondorio gehigarri gisa, beraz, hizkuntzaren afera birpolitizatu behar dela aldarrikatzen dugu. Izan ere, hizkuntza-ordezkapen prozesu guztietan gertatu bezala, normalizazio prozesuetan ere ezinbestekoa zaigu botere eta politika publikoen erabilera, botere betearazlearena barne. Horrela, hizkuntza normalizazioak ikuspegi hori bere baitan izango duen hizkuntza politika garatzea eskatzen du.

Horrek zuzen-zuzenean garamatza, noski, estatu egituren beharraren inguruko eztabaidara, baina hori hurrengo baterako utzi beharko dugu. 🌊

Oharrak

1. www.youtube.com/watch?v=Z-uWhB6d79I&list=PLu1XiDfqOVIxMo4KH-TR6j5X5mT6urTfM&index=2
2. www.europapress.es/euskera/noticia-euskararen-normalizazioan-eusko-legebiltzarra-atzerapauso-handi-bat-ematear-dagoela-salatu-dute-20120208170916.html
3. Bide batez, bistan denez, proposamena garatzeko konpromisorik ez zen hartu Eusko Jaurlaritzaren aldetik.
4. www.berria.eus/paperekoa/1483/012/001/2011-02-12/estatu-batekin-agian-euskara-ez-da-salbatuko-gabe-ziur-ezetz.htm
5. www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/araudia/lurralde-antolamenduko-legeria

Bibliografia

- Apodaka, E.; Morales, J. (2021): 'La gobernanza lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca: racionalidad neoliberal y demandas comunitarias', *Athenea Digital. Revista de Pensamiento e Investigación Social* 21(1), 1-26. <https://doi.org/10.5565/rev/athenea.2667>
- Arbelaitz, L. (2022): 'Idurre Eskisabel Larrañaga: «Euskara hizkuntza gutxitua dela aintzat hartu gabe, nekez egingo dugu aurrera»', *Argia* 2.805, 30-36 (www.argia.eus/astekaria/docs/2805/azala/2805_argia.pdf).
- Arnstein, S. R. (1969): 'A Ladder Of Citizen Participation', *Journal of the American Institute of Planners* 35(4), 216-224. <https://doi.org/10.1080/01944366908977225>
- Askoren artean (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*, Gasteiz, Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza.
- Bourdieu, P. (1985): *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Madril, Akal.
- Braun, M. (2011): 'Encuestas de opinión pública en América Latina: desafíos y controversias', *Revista Latinoamericana de Opinión Pública* 1, 13-38. <https://doi.org/10.14201/rlop.22247>
- Euskalgintzaren Kontseilua (2022): *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren lege-proiektua. Azterketa eta ekarpenak*, Andoain, Euskalgintzaren Kontseilua.
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua (2017): *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren eta VII. Kale Erabileraren Neurketa. Datuen azterketa, ondorioak eta proposamenak*, Andoain, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua.

- (2019): *Hizkuntza-politika birpentsatzen eta harreman-eredu berria eraikitzen. Eztabaidarako proposamena*. Argitaragabea.
- Eusko Jaurlaritz (2019): *vi. Inkesta Soziolinguistikoa 2016*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz.
- Goikoetxea, G. (2016): *Euskara irabazteko bidean*, Andoain eta Donostia, Jakin, Berria eta Elkar. *Aleka* bilduma 2.
- Goikoetxea, J. (2017): *Demokraziaren Pribatizazioa. Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak*, Donostia, Elkar. *Eztabaida* bilduma 36.
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia (2021): *Hizkuntza Eskubideen egoera 2021*, Andoain, Hizkuntza Eskubideen Behatokia.
- Iurrebaso, I. (2021): ‘Euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zer dago indartsuagoa? Zer dago ahulagoa?’, *Hermes* 69, 24-39.
- Jessop, B. (2017): *El Estado. Pasado, presente, futuro*, Madril, Catarata.
- Joan, B. (1998): *Un espai per a una llengua*, Valentzia, 3i4 edicions.
- Lakoff, G. (2007): *No pienses en un elefante. Lenguaje y debate político*, Madril, Foro Complutense.
- Lindblom, C. E. (1991): *El Proceso de elaboración de Políticas Públicas*, Madril, Miguel Ángel Porrúa.
- Mackey, W. F. (1976): *Bilinguisme et contact des langues*, Paris, Klincksieck.
- Martinez de Luna, I.; Suberbiola, P. (2020): *Euskararen erabilera eskola-giroan. Txosten exekutiboa*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz.
- Suay, Ferran; Sanginés, Gemma (2005): ‘Un espai per als parlants d’una llengua’, *Llengua i Ús. Revista Tècnica de Política Lingüística* 34, 27-39.
- Subirats, J. (2019): ‘Notas sobre gobernanza y cambio de época’, in Eusko Ikaskuntza: *Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua. Geroa Elkar-Ekin*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 547-555.